

EKINTZA-PLANAREN EREDUA



Kudeaketa aurreratura bideraturiko sendotze-proiektua eskatu nahi duten enpresek (2B proiektuak), dokumentu honetan jasotako egitura izango duen **ekintza-plana** aurkeztu beharko dute, ezinbesteko betekizuna izango da Innobideak-Kudeabiden jarraitzeko.

Kontrastea (Hasierakoa, Eguneratzea, Berritzea) egin duten enpresek Euskaliten laguntzarekin, ekintza-planean bildu beharko dute jasotako kontraste-txostenaren informazio garrantzitsua, INNOBIDEAK-KUDEABIDE esparruan ekintzen trazabilitatea aztertu ahal izateko.

50 langile edo gehiagoko enpresek, Euskalitekin Kontrastea egin ez badute baina Kontraste horren baliokidea den Kudeaketa Diagnostikoa -enpresa berak landutakoa- aurkezten badute, hemen planteatutako egituraren arabera Ekintza-Plana aurkeztu beharko dute, Kudeaketa Aurreratura zuzendutako eredia erreferentzia gisa hartuz dokumentazioa betetzera orduan.

Eskabidea aurkezteko unean Ekintza-plana zein 2B proiektuaren txosten tekniko bat aurkeztu beharko dituen enpresak.

Ekintza-plana integrala izango da, hau da, enpresak barne-kudeaketa hobetzeko egingo dituen ekimenak bildu beharko ditu. Era berean, **INNOBIDEAK-KUDEABIDEren esparruan aurrera eraman nahi dituen 2A eta 2B proiektuen planifikazioa ere batuko ditu.** Kudeabide lerroan parte-hartzeaz aparte, kudeaketa alorrean garatzen diren bestelako ekimenei buruzko informazioa batu egin beharko da.

Horrez gain, Kudeabiden aurretik parte hartu duten enpresek:

Aurreko deialdietan egin dituzten proiektuak -proiektu pilotua (2A) zein sendotze-proiektua (2B)- erantsi beharko dituzte. **Aurkeztuko duten ekintza-plana koherentea izan behar da,** lortu beharreko helburuei eta egin beharreko proiektuei dagokionez, aurretik programan aurkeztu dituzten ekintza-planekin bat egin beharko du.

Ekintza-planaren kalitatea 2B proiektuen eskabideak ebaluatzerakoan balioetsiko diren irizpideetako bat izango da. Kalitateko ekintza-planak aurkezten dituzten enpresen eskabideak baino ez dira onartuko, hau da, helburu zehatzak eta ekimen koherenteak dituztenak enpresaren kudeaketa aurreratuari ekiteko.

ENPRESAREN HELBURUAK KUDEAKETAN AURRERA EGITEKO

Kudeabiden lehenengoz parte hartuko duten enpresentzat:

Zehatz eta labur kudeaketa aurreratura bideratu nahi dituen helburu estrategikoak deskribatu eta zerrendatu behar ditu enpresak. Helburuak Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren elementuen arabera zerrendatu.

Kudeabiden parte hartu duten enpresentzat:

Kudeaketa hobetzeko egindako proiektu pilotuekin (2A) edo sendotze-proiektuekin (2B) lortutako helburuak deskribatu.

Zehatz eta labur enpresarentzat interesgarriak diren helburu estrategikoak deskribatu eta zerrendatu, kudeaketa aurreratutarako proiektu berriein aurreikusitako kudeaketa hobetzeko, Kudeabiden zein enpresaren plangintza orokorrean txertatuta daudenak.



KUDEABIDE

KUDEAKETA AURRERATUAN AURRERA EGITEKO PROIEKTUAK

Kudeaketa aurreratua hobetzeko enpresak eman behar dituen pausoak zerrendatu eta AURREKO TAULAN SAILKATUTAKO HELBURU ESTRATEGIKOEN ARABERA ORDENATU (helburu estrategiko batek hainbat proiektu abiaraztea ekar dezake, Kudeabidekoa zein bestelakoa izanik).

| Helburu estrategikoa: | Garatuko den proiektuaren titulua | INNOBIDEAK-KUDEABIDEn sartuko da? BAI/EZ | KAEn elementuak (*) | Urtea | Gauzatze-epea | Kalkulatutako aurrekontua |
|-----------------------|-----------------------------------|--|---------------------|-------|---------------|---------------------------|
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

(*) Proiektuarekin lotutako Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren elementuak (1. Estrategia; 2. Bezeroak; 3. Pertsonak; 4. Gizartea; 5. Berrikuntza; 6. Emaitzak), zereginak eta aurreikusitako emaitzak kontuan hartuta.

